

Udal talde politikoaren iritzia



GETXO, KONPROMISOAK ETA PARTE-HARTZEA

Ez da Getxoko Eusko Alderdi Jeltzalearen eta Amaia Aguirre Muñoa buru duen taldeak duela hiru urte herritarrekin hartutako konpromisoei buruz aritzen garen lehenengo aldia: "Gure ametsa Getxo sustatzen jarraitzea da, eta zurea? Getxorentzako proiekturik onena prestatu dugu, Getxoko gizarte osoari entzun ostean: merkatariei, ekin-tzaileei, elkartei, gazteei, nagusiei...". Horrela aurkeztu genuen gure hauteskunde-programa. Gaur nabarmendu dezakegu emandako hitza betetzen jarraitzen dugula, nazioarteko beste erakunde batzuk ere kontuan hartuz. Izan ere, Getxoko udal-gobernuak lortu du Europar Batasunak ia 3,5 milioi euroko dirulaguntza ematea NEXT GENERATION bitartez, zeina pandemiaren ostean sortutako egoerari aurre egiteko suspertze- eta erresiliencia-programa baita.

Amaia Aguirre alkateak azpimarratu du programa horrek sendotzen duela gobernu-talde honek Getxo giza garapen jasangarriarekin konprometitutako udalerrria izan dadin egindako apustua; horretarako, abian jarri ditu getxoztarren eskaerei nahiz beharri-



zanei dagokienez koherenteak diren jarduketak.

Areetako Zugatzarte etorbidearen

hiri-erlaldaketa egiteko proiektua; lehenengo fasean dauden Areetako Geltoki plazako eta Kale Nagusia zati batean

oinezkoentzat egiteko proiektuak; eta, irisgarritasun unibertsala bermatze aldera, Aрене kalean igogailu bat jartzekoa. Europak garrantzitsutzat eta jasangarritasunaren, irisgarritasun unibertsalaren, mugikortasunaren nahiz isurketen murrizketaren aldeko-tzat jo ditu udalaren proiektu horiek. Zalantza barik betetzen jarraitzen dugun konpromisoetako bat 2023ko parte-hartze izaerako aurrekontuei buruzkoa da. Izan ere, gizarteari, hau da, Getxon bizi, lan egin eta gozaten duten pertsonari entzuten diegu, eta gure hiri-proiektua aberasten dugu horrela.

Martxoaren 20ra arte, Getxoko herritarrok gure ekarpenak egingo ditugu parte-hartze izaerako aurrekontuen lehenengo fasean, herritarren proposamenetarako erabiltzen den milioi bat euroko zenbatekoa baliatzeko. Eskuragarri jarri diren postontzien, gure herriko hainbat kokalekutan egongo den stand-aren eta Zeugaz plataforma digitalaren bitartez hartu daiteke parte. Denon parte-hartzeari eta lan-kidetzari esker betetzen ditugu gure konpromisoak.



EZ GURE APARKALEKU-PARTZELAK KENTZEARI



Areetako Geltoki plazan EAJk egingo duen eraberritze-proiektuak, Kale Nagusia zati batean oinezkoentzat egitea eta Zugatzarte etorbidea eraberritzea barne hartzen dituen, guztira 200 aparkaleku-plaza kenduko ditu. Argi dago hori dela Getxoko herritarren kezka nagusienetako bat. Egoera horretan, PP taldeko kideok gogorarazi nahi dugu suntu-situ aurretik alternatibak eskaini

beharra dagoela. Horretarako, errepikatu nahi dugu aparkalekuak eraiki behar direla. Gure proiektuak bi aparkaleku hartzen ditu barne: batek, Kale Nagusian, 200 aparkaleku-plaza izango lituzke; besteak, Gobelaurren, 380 partzela. Bi helburu nagusi lortu nahi ditugu horrela: inguruko herritarrei konponbide bat ematea, eta orain arte aparkaleku-plazaren faltagatik beren ibilgailuak

ehbildu

PARKING FANTASMAK GETXON

Kotxeak aparkatzeko arazoak gora eta behera, ezertan laguntzen ez duen udal gobernuak daukagu. 9 urte pasatu dira San Nikolas plazaren azpian parkinga eraiki zutenetik. 9 urte igaro dira eta 105 lekutatik 16 baino ez dira saldu. Aparkalekuak dituen 105 plazetatik 17 plaza Musika Eskolako irakasleek erabiltzen dituzte eta beste bat, udal langile batek. 9 urte pasatu dira eta parkingaren okupazioaren %65ak hutsik jarraitzen du. Noiz arte?

Aparkaleku horren erabilpen eza ikusita, EH Bildutik mozioa aurkeztu genuen 2020an, epe laburreko (hilabete edo urtebeterako) alokairu soziala ezartzeko, modu honetan behintzat eraikita dagoen parkingari erabilpena emateko.

Mozioa onartua izan zen udal gobernuaren abstentzioarekin baina bi urte pasatu diren honetan ez dugu gai honi buruzko inolako mugimendurik ikusi. Parkingak ia hutsik jarraitzen du eta udal gobernuak ez du borondaterik erakusten egoera honi buelta emateko. Bitartean baina, beste bi aparkaleku eraiki dituzte, Manuel Gainza eta Ibarbengoakoa Andra Mari auzoan. Aipatzekoa da azken honen okupazioa ere, 295 plazakoa izanda egunean batz bestek %6,4-a betetzen da; hau da, egunean ez da 19 kotxera heltzen.

Porlanarekin eraikuntzara jolastera ohituta dagoen udal gobernu honi, diru publikoarekin ez jolasteko eskatzen diogu eta mugikortasun plan integral bat garatu dezala.



GIZARTE BERTINZALEAREN ALDE

Emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzearekin konpromiso tin-koa daukagu; **osoa, eraginkorra eta funtsezkoa** den berdintasuna behar dugu gure gizarteak aurrera egiten jarrai dezan. Jakin badakigu oraindik asko dugula egiteke. Horregatik, Gizarte Kohesioko Arloak Berdintasun Zerbitzuaren antolamendu-egitura areagotzearen alde egiten du lan: besteak beste, **pertsonal teknikoaren kontratazioaren bidez, Getxoko Emakumeen Etxearen** sorreran aurrera egiten, hori baitzen gure herritarrek aspalditik egindako eskaera, eta herritarren sentsibilizazioa bultzatzen dugu gizarte-kontzientziaziorako era-

kunde-programen eta -kanpainen bitartez, hala nola M8 egunaren harira egindakoa. Horrez gain, **indarkeria matxistari aurre egiteko jarduketak eta koordinazioko tokiko II. protokoloa** ezartzeko lanean dihardugu, eta espazio feministetako parte-hartze aktiboa sendotzen ari gara, esate baterako Berdinsarean eta BFAko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lurralde Sarean. Bene-benetan uste dugu berdintasunaren aldeko politika publikoak ezartzea funtsezkoa dela bidezkoagoa eta berdinzaleagoa den gizarte lortze aldera, **feminismoaren bitartez soilik lortuko baitugu berdintasunaren aurka borrokatzea.**



STOP LGTBIFOBIA!

Gorrotodiskurtsoek Getxon ere kalte-tzen dute. Biziki gaitzesten dugu Algortako inauterietan, San Nikolas plazan, adingabe baten aurka egindako eraso LGTBifobikoa. Aintzat hartuta ez dela lehenengo aldia gure udalerrian horrelako zerbait gertatzen dena, uste dugu gure udalak lehenetsi behar duela eraso horiek etetea. Horregatik guztiagatik, denbora daramagu eraso horiei aurre

egiteko neurriak proposatzen, esate baterako Getxon LGTBifobiaren aurkako diagnostikoari eta behatokiari buruzko mozioa, zeina gobernu-taldeak baztertu baitzuen. Hauxe galdetzen diogu geure buruari: zein da eta nola adierazten da gobernuak LGTBifobiaren aurka duen konpromisoa? elkarrekinpodemos@getxo.eus / www.elkarrekingetxo.blogspot.com